



BALIO PROPOSAMENA

- **Zer arazo edo beharra konpontzen dugu?**

Enkarterriko neska askok nahi dute entrenatu eta forma fisikoa zaindu, baina ez dute aurkitzen gimnasio bat beraien beharretara egokitua: seguru, atsegin eta motibatzailea. Gainera, kirola egitea bakarrik ez da nahikoa; elikadura osasuntsua eta motibazioa izatea ere garrantzitsua da, baina horiek ez dira normalean gimnasioetan eskaintzen. *Enkarneskek* arazo hau konpontzen du, espazio oso bat eskaintzen duelarik, non entrenamenduak, nutrizionistarekin aholkuak eta kafetegi osasungarriak jasotzen diren, neska bakoitzaren ongizatea eta motibazioa bermatzeko.

- **Zer egiten gaitu bereziki?**

- **Pertsonalizazioa:** entrenamenduak eta nutrizio planteamendua neska bakoitzaren maila eta helburuetara egokituta daude.
- **Zerbitzu osoa:** gimnasio modernoa, kafetegi osasungarria, nutrizionistaren aholkuak eta umeentzako espazioa ere bai eskaintzen ditugu, eta aplikazioaren bidez puntuen bidez bezeroak saritzen ditugu. Ekintza lasaiagoak nahi izanez gero, yoga edo pilates klaseak aukeratu daitezke.
- **Motibazioa:** puntu sistema bat dugu, gimnasioan parte hartzeagatik eta klaseak erreserbatzeagatik puntu batzuk jasoko dituzte eta horiek kafetegian produktu osasungarrietan trukatu ahal izango dituzte. Adibidez: smoothie osasungarriak, entsaladak eta zuku naturalak.
- **Teknologia:** gure app bidez klaseak erreserba ditzakete, nutrizionistarekin hitzorduak hartu eta puntuak jarraitu.
- **Segurtasuna eta erosotasuna:** instalazioak adin guztietako neskeei bideratuta daude, seguruak eta atseginak.

- **Zergatik ordaintzen dute gure bezeroek?**

- Neska bakoitzak espazio segurua eta berezia aurkitzen du, non entrenamendu profesionala jasoko duen eta nutrizionistarekin kontsulta egiteko aukera izango duen.
- Denbora aurrezten dute, kirola, elikadura eta motibazioa modu eroso batean bateratzen direlako.
- Ordainketa egiten dute ongizate fisiko eta emozionala hobetzen duten zerbitzu profesionala jasotzeko, eta hroi beste gimnasio batzuek ez dute eskaintzen.

- Gure inguruan ikusi dugu neska askok ez dutela gimnasio egokirik, baina proiektu hau ikusterakoan, ideia bikaina dela esan dute.

- **Faktore nagusiak gure balioa definitzen dutenak:**

- **Kalitatea:** entrenamendu profesionalak eta nutrizionistaren aholkularitza.
- **Segurtasuna:** neska gazteei egokituta dagoen espazioa.
- **Diseinua eta erosotasuna:** espazio atsegin, modernoa eta motibatzailea.
- **Pertsonalizazioa:** neska bakoitzari egokituta dauden planak, hau da, haien beharretara egokituta.
- **Erraztasuna eta eskuragarritasuna:** app-a erabiliz erreserbak eta puntu sistema kudeatu.
- **Motibazioa:** erronkak parte hartzeko eta sari sistema entretenigarria, neska gazteentzako baita helduetarako ere.

- **Lehiakideetatik bereizten gaituena:**

- **Berrikuntza:** gimnasio, nutrizio zerbitzua, umeentzako espazioa eta sari-sistema osoa eskaintzen dugu.
- **Nutrizionista aholkuak:** neska bakoitzaren beharretara egokituta dauden planak eta saio pertsonala.
- **Erraztasuna:** zerbitzu guztiak leku berean eta app bidez kudeatzen dira.
- **Arriskuaren murrizketa:** instalazio seguruak eta neskeen beharretara kontuan hartuta.

- **ENKARNESK - Puntu Sistema**

Ekintza	Jasotako puntu kopurua	Puntuak trukatzeko aukera
Gimnasioan sartu eta entrenamendu egin	5 puntu	Smoothie edo kafetegi produktuetarako
Talde klase bat erreserbatzea	3 puntu	Snack osasungarri edo entsalada
Nutrizionista partikularrarekin kontsulta	10 puntu	Smoothie handi edo kafetegiko produktu berezia
Erronka edo lehiaketa	7 puntu	Sari txikia

berezi batean parte hartzea		
Saio berezi edo workshop batean parte hartzea	8 puntu	Smoothie edo kafetegiko produktuak

- **Nola funtzionatzen du:**
 - Bezeroak app bidez ikus dezake puntuak eta zer produktu edo sari trukatu daitezkeen.
 - Puntuak hilabetean edo saio bakoitzean metatzen dira.
 - Bezeroak motibatuta egoten dira jarraipen erraza eta sari dibertigarriak dituztelako.
- Laburbilduz, *Enkarneskek* Enkarterriko emakume guztiei espazio segurua eta atsegina eskaintzen die, entrenamendu fisikoarekin, elikadura osasungarriarekin eta sari sistema dibertigarriarekin ongizate fisiko eta mozionala hobetzeko gaur egungo gizartean. Gure zerbitzuak pertsonalizatuak, integratuak eta motibatzaileak dira, eta horregatik gure bezeroek gurekin ordaintzea aukeratzen dute, beste gimnasio arrunt batekin baino esperientzia osoagoa jasotzen dutelako.